



Txantxangorria

Txori au txikia dozu, ta ia lurrarde guzietan aurkitzen da. Abots zoli-bigunekoa dalako, erreζ ezagutu oi dogu, nai uda nai negu. Moko edo pikua me-leguna; aundi ta illunak, begiak; itxuraz basatiarra. Auts-margozko dau lepoa, azpi zuria ta gorriak bular-paparrak. Luzeeran ez da asko, aundiera ia astun bez.

Soñu gozo ezfitsua dau txori polii onek; arin, samur ta atertu barik ekiten dautso kantaka; urte-aro guzietan entzun oi dogu bere txorro-txio leuna. Ta beti yaku atsegin ta eder, batez be negu luze solletan.

Uda-aldian, baso, beresi, oyan, zuinardi ta baratzetan bizi ta abestu oi dau. Txapar artean, geyenez, egiten dau abia, beresiko zokorik gordeenean; orri legor, ule, luma ta zotal ditu abigai. Zugatz sustrai artean edo abaki gaztelzan be, nozik bein, ipiñi oi dau, lurre-tik ur.

Negu biotzean, gosekak eraginda, gizonaren biztokirantz egaz dagi, janari billa. Mandio ta baratz zeaz dakusgu, zerbait idoro naita. Iñoi, uste osoaz, leyoetara elizen yatzu; baita, ego bizkor, eskaratz barruraño sar ta maitik jausitako ogi-mirrlñak polito jaso be.

Giltzape bizi zan batek aolku oneik damoskuz txantxangorria dala-ta. «Jainkoaren izakiak —diño— danak doguz on eta ederrak; zabaña nik maiteen dodana txantxangorria. Biotzez maite dot txori zoragarri au. Espetxe nengoan bein; ba-neban lor eta nekerik naiko. Alan be, txoritxo onek poztuten ninduan; egunero abesten eustan, oindiño ogean nengoala, goiz-kanta samurra, ta egun bitartean be, antxe ebilkidan, bira ta bira, neure lagun min. Zoragarri yatan bere abotsa; ta bera izan ezik, gure etxeko maiteak ez ebezan artuko ainbeste gorantzi, mosu ta eskumuin; bera bai-zan nire geznari zintzo ta bikafia.

Txoriño eder,
papar gorria,
alai egizu
nire espetxia.

Abestu samur
maite-eresia,
atsegin yatan
min-abestia».